



HAUSNARKETARAKO EGUNA BAINO GEHIAGO

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna da gaur; hainbat ekitaldi izango dira eskualdean 5-8

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteartea
2008-11-25**

VIURTEA 1.568.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



512 lagun bildu ziren Gure Kaiola elkarteak antolatutako herri bazkarian, herenegun, Zerkausion. GUREKAIOLA



Bigarren Eskuko Azoka antolatu zuten dirua biltzeko. EDU ARRAYET

Ipar Potosira 500 euroko laguntza 9



Ekudorreko dantza erakustaldia izan zen herenegun. IYUYA URRUTIA

Kultur Trukearen balorazio baikorra 10

BABARRUN ONENA PRESTATZEN ONDOEN DAKIENA SARITU DUTE

TOLOSA lurre elkarteko Antxon Monzonek eta Fernando Otxoak irabazi dute XXII. Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa 3



Itzala ageri ez denean

Oraindik gaitzaren itzala ageri ez denean, gaitza oraindik azalean ikusten ez dugunean.

Orduan da tratatu txarrak azalera ekartzeko ordua. Denok bat.

EGIN AURRE: HARTU AURREA TRATU TXARREI



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

Gipuzkoa
zure ondoan

Hirugarren porrota, jarraian, Bide Bide Ibizak

Tolosa » Baskonia talde gasteztarraren aurka lehiatu zen; partida gogor baten ostean, 68-69ko emaitzarekin galdu zuen.

ERREDAKZIOA

Bide Bide Ibizak azken bi partide-tangaldu eta gero garaipenaren bidean jarri nahi zuen berriro ere. Helburu hori lortu nahian taldeak aspaldiko partez jokalarri guztiak prest zituen partidarako. Lesio ugari gainditu eta gero, itxura ona zuen partidak astean zehar gogor entrenatu ondoren.

Aurkaria Baskonia talde gasteztarrazen. Talde oso gaztea aurkeztu zen Usabal kiroldegian. Tolosarrak eta gasteztarrak berdindurik zeuden sailkapenean partida hasi baino lehen.

Norgehiagokaren hasieran inork saskiratu nahi ez zuela zirudien. Lehen saskiraketa ia 4. minutuan iritsi zen. Behin saskiaren bidea aurkituta kanpotarrek etengabe aurkitu zuten bidea 3-10 aurretik jartzeko. Takeko mutileri

partidan sartzea kosta zitzairen arren lehen laurdena 11-17 bukatu zen.

Atsedendialdiaren ondoren etxeko taldea markagailuari buelta emateko asmoz kantxaratu zen eta partzial ikusgarri baten ondoren azken laurdenera 49-55 iristea lortu zuten. Laurden honetan Goar eta Kikeren lana azpimarratzeko izan zen.

Partida gori-gorian zegoen. Markagailua estutzen joan zen pixkanaka eta Martin Buesari egoztitako teknika batek tolosarrak partidan guztiz sartu zituen (55-60). Gauzak horrela, azken 23 segundotan markagailua 66-67koa zen. Kanpotarrek maixuki erabili zituzten beraien hutsarteak partiduak poltsikoratzeko. Amaieran eta bat atzetik joanda Bidebide Ibizak 10 segundotan ezin izan zuten faltarik egin eta partidua hone-lama bitu zuten.

Hurrengo astean dinamika honi buelta emateko asmoz taldeak Errioxara bidaiatu beharko du aurkari zuten baten aurka lehiatzeko. Partida iluntzeko zortzietan jokatu da.

Berdinketaren ostean, lidergoan jarraitzen du Tolosa CFk

Tolosa » Zumaiaiko taldea izan zuten aurkari larunbatean; 2-2ko emaitzarekin amaitu zen norgehiagoka.

ERREDAKZIOA

Berdinketaren ostean lortutako puntuari esker, bere lidergoa sendotzea lortu du Tolosak. Larunbatean Zumaiaiko taldea izan zuten aurkari, eta 2-2ko emaitzarekin amaitu zen, talde gipuzkoarren arteko norgehiagoka.

Zumaiaikoak nagusi izan ziren partidaren zati handienean. Baina, lehia aurrera zihoan bitartean, ne-

kea nabarmentzen hasi zen Zumaiaiko jokalarren artean. Honela, berdinketa erdieste lortu zuten urdinek.

Arbillaga, Sarazibar, Lanzeta, Romero, Telleria, Gurrutxaga, Ugartemendia, Haritz Jauregi, Jon Azpiroz, Balerdi eta Gorka Etxeberría izan ziren zelaian, larunbateko jardunaldian.

Denboraldiko hamaikagarren jardunaldia zen asteburuko. Honen ostean, 22 punturekin dago Tolosa CF. Atzetik, bi puntu gutxiagorekin dago Pasaia. Urdinek hurrengo partida etxean jokatu dute. Berazubiko zelaian, sailkapeneko zazpigarren postuan dagoen Hernani izango dute aurkari.

'Udazkenean kultura'-ren baitan, bertso poteoa eta afaria ostiralean

Alegia » Zazpi Astoren Gaietan bertso eskolak antolatatu du; afarirako txartelak salgai daude bihar arte.

ERREDAKZIOA

Udazkenean kultura ekimenaren baitan, Zazpi Astoren Gaietan bertso eskolakoek bertso poteoa eta bertso afaria antolatatu dute hilaren 28rako.

19:30ean emango diete hasiera ekitaldiei. Eider Zubillaga eta Maider Zabala trikitalariekin lagunduta, bertsoan arituko dira tabernaz taberna, poteatzen duten bitartean. Unai Muñoa eta Iñaki Gurrutxaga bertsolari gazteak ariko dira giroa berotzen, beraien saioarekin.

Poteoaren ostean, 21:00ak inguruan afaria izango da Intxurre elkartearen. Afarirako txartelak Kultur Etxean eros daitezke 17 euroren truke. Honetarako azken eguna bihar izango da. Menua ondorengoa da: entsalada, txerrikumea, izozkia eta kafea.

Laskoraineko jokalariek ezin izan diete aurre egin Jarrillerosekoei

Tolosa » 7-4ko emaitzarekin galdu zuten larunbatean talde horitxoak, Portugaleten jokatu zuten norgehiagokan.

ERREDAKZIOA

Aspaldiko neurketarik eskasena jokatu zuten Laskorainek joan den larunbatean Portugaleten. Hala, aitzakiarik onartzen ez duen porrota pairatu zuten Jarrilleroseko beteranonen aurka. Defentsa lanean izandako arazoaren erakusle da 7-4ko azken emaitza.

Sailkapeneko goiko postuei eusteko puntu premian, ikastolakoak partidaren bila kantxaratu ziren. Helburua baloia jabetza eskuratzeko zen eta erasoan partidari erritmo altua ematea. Horrexek baitziru dien garaipenerako biderik aproposena kalitatez aberats baina fisikoki behartsu agertzen zen Jarrillerosen aurka.

Horitxoek izan zuten baloia denbora gehienean baina alferrik izan zen. Izan ere, baloia jabetza uste baino garestiago ordaindu behar izan zuten. Portugaletekoak, eskarmentu handiko jokalarriak izaki, komeni baino gehiagotan

izan ziren gai horitxoaren presioa gainditzeko eta gol aukera garbi garbiak sortzeko. Bestalde, baloia eskuratuta, Laskorainek ez zuten erasoan behar bezala jokatzeko asmatu.

Horitxoek erreazio gaitasuna behintzat erakutsi zuten, hiru bider lortu baitzuten markagailua berdintzea atzetik ipini eta gero. 1-0koaren ondoren Saldias egin zuten banakoa, 2-1koaren ondoren Otxoak binakoa eta 4-2 ipini eta gero piskanaka piskanaka goruntz datorren Zubillagak eta Telletxeak ekarri zuten launakoa. Baina hortxe gelditu zen dena eta azken minutuetan atezain jokalarri estratejiak onura beharrean kalte gehiago ekarri zuen.

Aipatzekoa dira Tolosako taldeak pairatzen dituen bajak. Barriolak, Murgik eta Amatriainek ez zuten Portugaletera bidaiatu eta berriro gertatzen ari zen Lander berriro lesionatu zen kantxaratu eta lau minutu eskasetara.

Honenbestez, kopetilun itzuli ziren Tolosara Javi delegatua, Alonso entrenatzailea eta Lander, Zabala, Saldias, Telletxea, Otxoa, (hasierako bostekoa), Telleria, Lander, Gil, Zubillaga eta Domen-txe jokalarriak.



Miguel Hernandez izan zen garaila, eta bigarren, Jose Mujika geratu zen. HITZA

Miguel Hernandezek irabazi du Gipuzkoako Xake Txapelketa

Tolosa » Partidarik ez du galdu bilabonarrak; bigarren Jose Mujika geratu da, eta hirugarren, Jokin Mendia.

ERREDAKZIOA

Larunbat honetan amaitu da hirugarren mailako Gipuzkoako Txapelketa. Tolosako Xake Elkartearen egoitzan jokatu da txapelketa hau, urriko eta azaroko larunbatean. Villabonako Miguel Hernandez izan da txapeliduna. Bera izan da partidarik galdu ez duen jokalarri bakarra, behin berdindu eta gainontzeko partida guztiak irabazi-tan. Bigarren, Ibarako Joxe Mujika izan da eta hirugarren, Tolosako Jokin Mendia. Bi jokalarri hauek jubenilen mailakoak dira oraindik,

baina azken urte hauetan erakutsi duten gorakadari esker merezimu oso irabazi dute txapelketako podium postuek ematen zuten bigarren mailara igotzeko txartela.

Txapelketa oso lehiatua izan da. Ez da egon ordubete baino gutxiago iraun duen partidarik eta luzee-na hiru orduetara iritsi da. Batez beste berrogei jokalditik gora iraun dute partida guztiak, larogei-ta bat luzeenak eta hamahiru mo-tzenak. Aipatzekoa baita ere pie-zen koloreak erakutsi duen gar-rantzia. Pieza zuriekin jokatu dutenek txapelketako puntu guz-tien ehunek hiruogei irabazi di-tuzte, oso portzentaje altua ezau-garri honetako beste txapelketek-erri alderatuta. Bestalde, hiru berdinketa bakarrik gertatu dira, datu esanguratsua baita ere.

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutzegorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aitzondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Giro onean agurtu dute Babarrunaren Astea

Gastronomia » Antxon Monzon eta Fernando Otxoa izan ziren Lehiaketa Gastronomikoaren irabazleak; 512 lagun bildu ziren herri bazkarian.

INIGO TERRADILLOS

Amaitu da aurtengo Babarrunaren Astea. Euria izan zen atzokoa-
ren ere protagonistetako bat, baina eguraldi txarrari aurre eginez, giro polita izan zen azken ekitaldietan. Ohiko moduan, Gure Kaiola elkarteak antolatutako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoa izan zen atzo Babarrunaren Asteari agur esateko, eta Antxon Monzon eta Fernando Otxoa izan ziren epaimahaiaren ustez babarrun onenak prestatu zituztenak.

Babarrunak prestatzeak dembora askoko lana esan nahi duenez, goizean goizetik hasi ziren 22 parte-hartzaileak sukaldatzen Zerkausi kalean. Pixkanaka sukaldari-
en lana ikustera jendea gerturatu-
tuz joan zen, eta horri Neka Ezinak txarangakoan doinuak batu zitzaizkien. Beraz, giroa berotuz joan zen.

Sukaldariguztiek babarrunbera erabili zuten, hau da, larunbatean Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketa irabazi zuen Albizturko Juan

Ugartemendiarena. Hauek euren lana amaituta, epaimahairen lan iritsi zen, Julian erretegi Matias Gorrotxategi, Nicolas erretegi Pedro Ruiz, Gure Kaiolako Jose Luis Peciña, Babarrun Ekoizleen Elkarteko lehendakaria Mari Kar-
men Iradi eta Sausta eta Hernialde jatetxeetako sukaldariena, hain zuzen. Plater guztiak probatu ostean, Iurre elkarteko Antxon Monzon eta Fernando Otxoari eman zieten lehen saria. Plateraren aurkezpenaren atalean, Legorretako Bilkoen elkarteko Sabino Fernandez eta Izaskun Zubeldia izan ziren sarituak.

Babarruna jateko txanda iritsi zen gero. Aurten herri bazkaria lekuz aldatu eta Zerkausian egin dute, eta bertan 512 lagun bildu ziren. Karla Mujika Gure Kaiola elkarteko lehendakariak esan bezala «oso atera da, eta bai bazkarian izan zirenak bai eta gu ere oso gustura gaude; giroa oso polita izan zen, eta datorren urtean ere Zerkausian egitea da gure asmoa».



Epaimahaiko kideak babarrunak dastatzen onena aukeratzeko. GURE KAIOLA

» SARIAK

Lehiaketa gastronomikoa

1. Antxon Monzon eta Fernando Otxoa (Iurre elkarte, Tolosa).
2. Jose Manuel Sorozio eta Pili Iturbe (Arrano elkarte, Beasain).
3. Floren Altuna eta Bixente Artola (Xepla elkarte, Ibarra).
4. Mikel eta Ximon Azarola (Almuño elkarte, Brinkola).
5. Sabino Fernandez eta Izaskun Zubeldia (Bilkoen elkarte, Legorreta).

Aurkezpena

1. Sabino Fernandez eta Izaskun Zubeldia (Bilkoen elkarte, Legorreta).
2. Jose Manuel Sorozio eta Pili Iturbe (Arrano elkarte, Beasain).
3. Xabier Iturrate eta Begoña Ibarra (Izarrako Beko Iturri, Araba).



500 lagun baino gehiago elkartu ziren Zerkausian. GURE KAIOLA

«Horrelako sari bat ez da egunero eskuratzen; oso gustura gaude»

ANTXON MONZON » Lehiaketa Gastronomikoaren irabazlea

Gizartea » Bigarren aldiz irabazi du Gure Kaiolako antolatzen duen lehiaketa; «ohiko eran prestatzea da sekretua».

I. TERRADILLOS

Gure Kaiola elkarteak antolatutako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoaren 22. edizioa izan da aurtengoa. Guztira, 22 parte-hartzaile izan dira, eta epaimahaikak Tolosako Iurre elkarteko Antxon Monzonek eta Fernando Otxoak prestatutako babarrunak aukeratu ditu lehenengo saria emateko. Antxon Monzonek (Tolosa, 1952) «oso gustura» daudela, eta ohiko eran egiten dituztela azaldu du.

Pozik egoteko moduko saria jaso duzue.



Antxon Monzon, Fernando Otxoa eta Jokin Bildarratz, herenegun. GURE KAIOLA

Bai. Oso gustura gaude, ez baita horrelako sari bat egunero jasotzen.

Irabaztea pentsatzen al zenuten? Parte-hartzean ahalik eta egokien egiten saiatu ginen emaitza ona lortzeko.

Zein da zuen sekretua babarrun platera prestatzeko orduan?

Ohiko eran, modu tradizionalan egiten ditugu, hau da, ura, olio eta tipula baino ez botata. Puntuazio-
goen platera, eta salda ere era egokian, beraz, hori hartuko zuten kontuan epaimahaiko kideak.

Parte-hartzaile ugari izan dira. Beraz, ez zen erraza izango lehen saria eskuratzea.

Ez, eta aurten, beste urteetan bezala, maila altua izan dela aipatu dute. Lehenengo bost onenak aukeratu zuten dituzte, eta gu lehenengo postuan jartzea oso pozgarria da.

Ez da lehenengo aldia irabazte duzue.

Ez. Lehenengo sari bat eskuratatu dute; baita 2., 4. eta 5. saria ere.

Hurrengo urtean aurkeztuko zara, noski?

Ezin dugu, irabazi egin baitugu.

**OKINDEGI/KAFETEGIEN SEKTOREAN
LIDERRA DEN ENPRESAK
NEGOZIO BERRITZAILA ETA
KONTRASTATUAREKIN
LEITZAKO HEDAPENERAKO
BEREKO NEGOZIOA KUDEATU NAHI
DUTEN PERTSONEKIN
HARREMANETAN JARRI NAHI DU
ERRENTAGARRITASUNA ZIURTATURIK
Harremanetarako telefonoa:
607219256 / 607 575018**

Hiru gazte atxilotu dituzte ustez Segik sinatutako kartelak jartzeagatik

Anoeta » «Illegalizatutako erakundearekin kolaboratzea» leporatzen diete; ezker abertzaleak salatu egin ditu atxilotetak.

ERREDAKZIOA

Ertzaintzak larunbat arratsaldean hiru gazte atxilotu zituen, horietako bat adingabea, Segik sinatutako kartelak itxastea egotzita. Gazteetako batek 17 urte ditu eta beste biak 22. Larunbatean bertan aske utzi zituzten eta «illegalizatutako erakundearekin kolaboratu izana» leporatzen diete. Orain, epaileak deklaratzera noiz deituko dien zain gelditu dira hiru gazteak. Atxilotetak salatzean bihar, 19:00etan, elkarretaratzera deitu dute Anoetako plazan *Gazte eta aske irabazi arte!* lelopean.

Anoetako ezker abertzaleak azaldu duenez, «ez da Ertzaintzaren eta bestelako polizien jazarpena jasaten dugun lehen aldia Anoetan. Honelako gertakariak agerian uzten dute Euskal Herriak bizi duen salbuespen egoera. Gaur egun independentzia eta sozialismoaren alde lanean aritzeagatik atxilotuak eta askotan kartelak jartzeak izateak agerian uzten du Euskal Herriaren pairatzen dugun demokrazia eza».

Ezker abertzaleak gaineratu duenez, «polizien jazarpen hauek» euskal gazteria beldurtzeko «helburua argia dute». Gazteriaren borroka «desaktibatu» eta «beraiek bultzatzen duten gazte eredu bihurtzeko» helburua dutela dio. «Gazte pasiboa bihurtzeko, bere helburuen alde borrokatuko ez duena, gaztetxean antolatuko ez dena, bere buruaz soilik

arduratuko dena, zapaltzen gaituen sistemaren aurka altxatuko ez dena, azken batean beraien eredu kapitalistan txotxongilo bat izango den gaztea bihurtzea», zehaztu duenez.

Ezker abertzaleak «gogor» salatzen du «PNVren papera, bera baita Ertzaintzari honelako jazarpenak egitea agintzen diona». «PNV da bere ertzainei euskal gazteak atxilotu, zigortu eta askotan espainiar epaileen aurrera eramateko agintzen diona», dio. Alderdi jeltzalearen jarrera horrek «helburu jakinak ditu», gaineratzen duenez: «Batetik, euskal gazteria bere lanaren ondorioz lortzen ari den independentziaren eta benetako aldaketaren aldeko mezua ahuldu eta isiltzea. Eta bestetik, PSOEri Espainiaren interesak defendatzeko garaian bide lagun ona izango dela azaltzea». Hori «askotan» erakutsi

dutela dio, «Espainiako aurrekontuak onartuaz, Alderdien Legea zintzo beteaz, Euskal Herriko selekzioari Euskadi izena aldatuz eta oraingoan euskal gazteak atxilotzeko gai dela azalduaz».

«Lanean jarraituko dugu»

Euskal Herriaren lurraldetasuna eta autodeterminazioan oinarrituriko marko demokratiko baten alde lanean jarraitzeko hautua eginda duela dio ezker abertzaleak eta «honelako gertakariak ez gaituzte gure helburuetatik urrunduko». Gaineratzen duenez, «lanean jarraituko dugu gazte eta heldu, eskuz esku, egunen batean Euskal Herriar guztion eskubide guztiak errespetatuak izan daitezten. Herriar oro animatzen dugu borroka honetara gehitu eta bere altxoa jartzeko herri honen alde».

Bestalde, bere «babes eta elkartasunik beroena» ematen diete «herri honentzako etorkizun hobe baten alde lanean ari diren gazte guztiak eta bereziki asteburu honetan Ertzaintzaren jazarpena zuzenean pairatu duten hiru gazte hauei». Deia luzatzen du herriar orori bihar deitu den elkarretaratzeari parte hartu eta gazte horiei babesa azaltzeko.

«Giro ederra» herri kirolaren festan

Hernialde » Aizkoran lehiatu ziren alkizarrak, anoetarrak eta hernialdearrak; bazkaria egin zuten ondoren.

I. GARCIA

Jende dezente elkartu zen herenegun eguerdian Hernialdeko frontoian. Herri kirolen festa ikusteko elkartu ziren eta «giro ederra» izan zen, Igaro Balda Hernialdeko alkateak azaldu duenez. Orain 28 urte egin zena gogoratu eta jarraipena emateko gogoz, aizkoran aritu ziren hiru bikote: Alkiza, Anoeta eta Hernialdekoak. Irurako inor ez zen izan, baina bertako alkatea izan zen ikusle eta ondorengo bazkarian. Izan ere, orain 28 urte lau herrietako kirolariak aritu ziren lagunarteko txapelketan.

Alkizatik Jon Roteta alkatea eta bere anaia Alberto lehiatu ziren. Anoetatik Joakin Garmendia eta Inigo Iturrioz izan ziren eta Hernialdetik Adrian Tolosa eta Imanol Iruretagoiena *Izeta*. Bi proba egin behar izan zituzten aikorarekin. alde batetik zeinek azkarren moztu enbor bat, txanda librean. bestalde, bi enborri lau ebaki kolpe gutxiagoetan ematea. Bi probetan irabazleak alkizarrak izan ziren eta, ondorioz, beraiek eraman zuten txapela. Bigarrenak hernialdearrak izan ziren eta hirugarrenak anoetarrak. Aipatzekoa da orain 28 urte parte hartu zuten artean



Aizkoran aritu zirenak esfortzu betean Hernialdeko frontoian. HITZA

bi herenegun ere aritu zirela: Joakin Garmendia eta Adrian Tolosa.

Zeinek irabazi zuen ez zen, berez, garrantzitsuena, baizik lau herrietako jendea elkartzea herri kirolen aitakian. Horregatik, probaren ondoren, bazkaria egin

zuten eta bertan izan ziren lau herrietako alkateak, aizkoran aritu zirenak eta izena eman zuten herriarrek. Anjel Mari Peñagarikano eta Iker Zubeldia bertsolariak aritu ziren eta eguneko giro ona luzatu zuten. Balda Hernialdeko al-

kateak dioenez, «lau herrietako alkateak komentatu genuen beti bilera formaletan ikusten dugula elkar eta noizean behin horrelako bazkarietan elkartzea oso ondo dagoela. Etorkizunean ere gehiago antolatzeari espero dugu».

Laburrak

Mihiluze Txapelketaren kanporaketa bihar Asteasun

AIZTONGO » Kaxkagor elkarteak Mihiluze Txapelketa antolatu du Aiztongoko gazteentzat. Atzo hasi ziren Adunan lehen kanporaketa egiten. Bihar Asteasun egingo dute, Kultur Etxean, 19:00etan. Hurrengo Larraulen izango da, abenduaren 15ean, Kultur Etxean, 18:30ean. Azkeneko kanporaketa abenduaren 30ean izango da Zizurkilen, 17:00etan, Kultur Etxean. Finala urtarrilaren 3an izango da, Zizurkilen ere. Bikoteka parte hartu behar da eta 12 eta 16 urte bitarteko gazteak har dezakete parte. Herri bakoitzetik lehenengo gelditzen den bikotea pasatuko da finalera. *kaxkagor@hotmail.com* helbidera idatzi behar da izena emateko, bikotearen izen-abizenak jarri eta zer herritako kanporaketetan parte hartu behar duten esanez.

Jubilatuaren bazkarian izena emateko azken eguna

HERNIALDE » Hilaren 30ean, Udalak eta Erriobide elkarteak antolatuta, jubilatuentzako bazkaria izango da elkartearen bertan. Izena eman nahi duenak udaltxean egin beharko du eta bihar da azken eguna horretarako.

Korzenevskaia mendia protagonista, gaurkoan

VILLABONA » Aizkardi mendi elkarteak antolatzen duen 25. Mendi Astean, gaurkoan Mikel Legarreta eta Arkaitz Lasa mendizaleen txanda izango da. Mendizale gazte hauek Korzenevskaia mendia- inguruan ikus-entzunezkoa eta solasaldia emango dute. Ema-naldia 20:00etan izango da Gurea aretoan.

Elikadura transtornoiei buruzko hitzaldia Zentroan

VILLABONA » Udako Gizarte Zerbitzuek bultzatuta, Acabe elkarte-ko psikologoak hitzaldia emango du gaur Jesusen Bihotza Ikastolako zentroko eraikean elikadura transtornoiei buruz. Bertan anorexia, bulimia, bigorexia... izango ditu hizpide. Hitzaldia 18:00etan hasiko da eta ekimena guraso guztiak nahiz interesa duen orori, zabaldua dago.

Guraso Topaketarako izen-ematea zabalik

VILLABONA » Udalak Guraso Topaketak antolatu ditu aurtengo ikasturterako. Hiru talde egingo dira, 0-10 urteko seme-alaben gurasoentzat bi, bat hastapeneko eta beste sakontzekoa, eta 11 urtetik gorako seme-alabak dituzten gurasoentzat hirugarrena. Izena Gizarte Zerbitzuetan eman behar da eta abenduaren 5era arte dago epea zabalik horretarako. 12 euroko kuota ordaindu behar da.

E **Elkarrizketa****NEREA SANCHO** Sexologoa

HITZA

«Hezkuntzaren bidez eragiten ez duguna ez du kaleak zuzenduko»

Altzo » Emakumeenganako indarkeriaz, berdintasunaz, gurasoez, nerabeez... hitz egin du Nerea Sancho sexologo donostiarrak.

ENERITZ MAIZ

Nerea Sancho (Donostia, 1978) Alizon bizi den sexologoa da. Berarekin egon gara azaroak 25 dela eta. Emakumeenganako indarkeria, gizon-emakumeen arteko berdintasuna eta nerabeen inguruan hauxe azaldu digu.

Azaroak 25 emakumeen indarkeriaren aurkako eguna. Noiz arte jarraitu beharko dugu egun hau aldarrikatzen?

Gizonek, gizon izateko eredu askoren artean aukeratzeko librentzaren ez diren bitartean. Sexu identitate propioa eraikitzeak aukera izatea ezinbestekoa da. Bizitza

erakasta izateko modu bakarra eta mugatua ezartzen denean, beste bizimoduak porrotatzat jotzen dira... Arrakasta norberaren helburuen arabera definitzeko aukera izan behar du gizon bakoitzak, emakume bakoitzak.

Hezkuntzan, erakundeetan... Azken urteotan aurrerapausoak eman dira ala paperetan geratu dira?

Erakundeek beldurra erabiltzen jarraitzen dute jokabidea kontrolatzeko instrumentu gisa eta oraindik ere emakumea biktimizatzen da eta gizona inoiz baino *susmagarriago* bihurtu dugu. Ez dutuste bi-

dea hori izan beharko litzatekeenik.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasunera iritsi ahal izateko zer du oinarri-oinarrizkoa gizarte honek? Nondik hasi beharko genuke?

Gizonak eta emakumeak desberdinak gara, behar desberdinak ditugu eta desberdin komunikatzen gara. Bi sexuek elkar ezagutzea oinarritzakoa da. Geografia ikasteko urteak eskaintzen dira eskoletan... Nola suposa dezakegu gizon eta emakumeak elkar ezagutzeko oinarritzakoa hezkuntzan pare bat hitzaldirekin nahikoa dela? Sexuen hezkuntza serioa behar dugu, hasteko.

Zein paper duzue sexologok gai honen inguruan? Zer da egiten duzuen?

Alor edo une ezberdinetan eskuartu dezakegu. Hasteko, sexu identitate aniztasunaren aurrean aukera egiten lagundu dezakegu hezkuntzaren bidez. Mutikoei iseka egiten zaie eta ez zaie bakean uzten nesken kutsua duen edozein gaitza egitean: arrosa koloreko bizikle-

ta aukeratzean, panpinekin jolastean eta aurrerago... «nesken» kirola aukeratzean edo lanbide «femeninoak» gustuko izatean. Batek, gizoni askatasuna mugatzen zaie eta bestetik, emakumeekiko mespretxua transmititzen jarraitzen da horrela. Bestetik, komunikatzen lagun dezakegu, elkar ulertzen. Gizon eta emakumeon komunikazio estiloak desberdinak dira eta ezagutzea ezinbestekoa da. Tratu onak eta elkarbizitzeko estrategia eraginkorrak eskaintzen ditugu.

Egunero ditugu genero indarkeriaren inguruko albisteak. Zer eskatuko zenieke honen aurrean erantzun tinkoa eman behar dutenei?

Legedia eta intimitatearen errespetuaren arteko marra oraindik ez dugu behar bezala menderatzen herri honetan. Gizon eta emakume izateko identitate aniztasuna aldarrikatzea eta sustatzea. Bizitza estilo alternatibo duinak eskaintzea indarkeria erabiltzeko arriskuan dauden gizoni. Euren bizitza berrinterpretatzeko iaio-

sunak irakastea... eta kondenatuak diren kasuetan... benetan zorrotzak izatea.

Zer ikusi, hura ikasi. Guraso askok beraien portaeretatik hasi beharko lukete ezta?

Edozertarako baimena behar izaten dugu: gidatzeko, lan bat burutzeko, herri batean bizitzeko... baina guraso izatea ez dago erregula-

Haurrek besteekiko errespetu falta erakusten dutenean, gurasoek gogorrak izan behar dute

Belaunaldi berrien baloreak negargarriak dira, kasu askotan; atzera pausoa eman da

tuta. Gurasoek eragin handia dute euren seme-alaben jarreretan, baina beraiekin egoteko kalitatezko denbora gutxi izaten dute.

Zer gomendatuko zenieke gaur haur txikiak edo nerabeak dituzten gurasoei?

Gomendatzea erraza da, egitea, zailagoa. Dena den, ausartuko naiz esatera... Haurrek besteekiko errespetu falta erakusten dutenean, beraiekin gogorrak izatea. Eta hasteko, gurasoek errespetatzen ikasi behar dute.

Eta nerabeei? Zer jokaera dute gaurko gaztetxoek neska-mutilen arteko berdintasunaren aurrean?

Nire sentsazioa... atzerapausoa eman dela. Belaunaldi berrien baloreak negargarriak dira, kasu askotan. Aniztasuna ez da errespetatzen ikasi. Mutil eta nesken sexu identitateak estereotipatuagoak dira.

Nerabeekin gai hauek lantzen dira?

Ez sakonean. Ez zaio behar bezalako denbora eta garrantzia eskaintzen. Adibidez, bideojokoen bidez, hainbat balore transmititzen dira: biolentzia, emakumeen funtzioen mugatzea... eta ez dira eskoletan edota gurasoekin hausnartzen... ez dira alternatibak sortzen...

Zer da gure gizarteari argi eta garbi utzi behar dioguna?

Hezkuntzaren bidez eragiten ez duguna, ez du *kaleak* zuzenduko.

Anoetako Udala



Indarkeria generikoaren aurka

Herriko Plaza, z/g
20270 ANOETA
943 65 12 00
udala@anoeta.net
www.anoeta.net



Ibarrako udala biolentzia generikoaren aurka

943 673 827

Ibarrako udala • Euskara zerbitzua

Duela urtebete emakumeek elkartzeko zituzten beharrak ikusita sortu zuten Villabonan Hutsunea Betez elkarte. Orduz geroztik lan eta lan ari dira. Bestalde, emakumeen indarkeriaren eta berdintasunaren inguruan eskualdeko kirolari, etorkin eta gizonezko baten iritziak jasotzen dituzte. Hauxe izan da beraien aldetik izan dugun erantzuna.

«Emakume bezala garatu eta haztea dugu helburu baina aisian ere oinarritzen gara»

MAXUX ALVAREZ » Hutsunea Betez-eko lehendakaria

Villabona » Hutsunea Betez elkarte duela urtebete sortu zuen emakume talde batek. Gogor ari dira lanean.



Maxux Alvarez, ezkeretik laugarrena, elkarteko kideekin. E. MAIZ

ENERTZ MAIZ
Hutsunea Betez elkarte duela urtebete inguru sortu zuen emakume talde batek. Gaur egun jada 30 emakume osatuta dago eta Maxux Alvarez da bertako lehendakaria.

Nolatan eta noiz sortu zenuten Hutsunea Betez?
Pepa Bojo psikologikoki eman zuten ikastaro batean elkartu ostean, emakumeek elkartzeko espazio baten beharra ikusi genuen. Ongi irizten da txoko bat izatea hitz egiteko, negar egiteko... Guk guztiok lehen elkar ezagutzen genuen baina, batzuk elkar aguru ere ez gij-

nen egiten eta horrela aukera izan dugu elkar ezagutzeko. Pertsona bezala garatu eta haztea dugu helburu. **Zer da egiten duzuen?**
Zer ez dugu egiten? Orain aritzen gaituztekin ari gara. Irteera kulturalak eta familiarak antolatzen ditugu; esaterako Gaztelugutxe edota Iruñeko sanferminetara egin ditugu. Ikastarok ere bai, barre tera-

pia eta sabel dantzarena. Gure afariak ere egiten ditugu. Pertsona bezala hazteaz aparte aisia oinarritzen gara. Esaterako asteartero elkartzen gara. Udak utzindugun gela honetan eta ondoren, batzuk kafe bat hartzea josten gara. Gure arazoetaz hitz egiten dugu baina gure artean geratzen dira horiek. Pepa Bojo psikologoaren laguntzarekin ari gara

lanean. Orokorrean oso gustura gaude egiten ari garen guztiarekin. **Nola funtzionatzen duzue?**
Asteartero elkartzen gara eta beste batzuk posible duten egunetan ere elkartzen dira. Lekua da falan botatzen duguna. Behar-beharrezkoa dugu gela bat guk nahi eta behar dugun guztietan elkartzeko. Orain gela honetan gaude

baina ezin gara egunerok elkartu eta emakumeek falan botatzen dugu. **Herritarren aldetik erantzun onajasoitzen al duzue?**
Orokorrean gaitxi. Faldekoetatik aparte, herritar guzti antzizten dira baina urtebete beharrik daramagu eta pizkama joan beharra daukagu.

Gela edo lokal baten behar handia dugu bertan elkartu eta aurrera egiteko

Gizonezkoak onartzen dira?
Elkarteko kide bezala ez estatuak horrela onartu zirelako, baina guk antolatzen ditugun ikastaroen parte har dezake.

Ekonomikoki nola zabiltzate?
Batekik eta bestetik biltzen dugu. Udala, Foru Aldundia, kamisietak ateratu ditugu, telebista josten gara...

Azaroak 25 eguna dela eta tratu txarren inguruan zer duzue esateko?
Eratu gaizki ikusten dugula. Zer esango dugu? Jada dena esanda dago eta gu ahal den neurrian zerbitu positiboa ateratzen saiatzen gara.

NIK EMAKUMEENGANAKO INDARKERIARI EZ, ETA ZUK?

Emakume askok tratu txarrak edo sexu jazarpenak noztzen dituzte etxean, kalean, lantokian...

Arazoak: emakume izatea
Kausa: matxismoa

Zer dira tratu txarrak?
Eraso fisikoak, psikikoak, sexuak edo beste motako erasoak, golpeak, ubeldurak, irrisak, mehatxuak, laidoak...
Emakumeek ez dutelako erantzun norabait jipolteko.

Zer egin?

Tratu txarrak pairatzen badituzu:
Bait-bateko eraso baten aurrean ahal baduzu delu Ertzaintzari edo Udaltzaingoi. SOS DEIAK 112. Lesioak badituzu medikura joan, azaltu gertatu zaiuzuna eta eskatu ezazu informarean kopiatu bat.

Tratu txarrak pairatzen badituzu zure egunerokotasunean:
Norbaitekin hitz egin. Lagun bai, familiarekin norabait... Laguntza eskatu beti. Etorri gugana. Tolosako Gizarte Zerbitzuak, Berdintasun Zerbitzura...

Jasoko duzu:

1. Laguntza eta aholkularitza salatze eta urrutitze edo babes agindua eskatzeko.
2. Aholkularitza juridikoa.
3. Laguntza psikologikoa doan.
4. Lantokiko biziak, zure etxera ezin baduztu joan.
5. Diru laguntzen gaineko informazioa eta gestioa.

Salatu: garrantzitsua da salatzea eta babesa jasotzea baina garrantzitsua ere harmena uztea da. Norbaitek mehatxatu, jipolitu, iraindu, zauritu edo jotzen bazaitu, ez zaitu maila.

«Hezkuntzatik hasi beharra dago eta errespetatzen irakastea oinarritzkoa da»

VANIA OROSTEGUI » Etorikina

E. MAIZ
Vania Orostegui (Kolonia, 1977) ia bi urte daramarza bere familiarekin Tolosan bizitzen. **Noiz arte jarraitu beharko dugu Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna aldarrikatzen?**
Berandu hasten gara la uste dut eta ez duela egun bat izan behar. Haurren hezkuntzatik hasi beharra dago eta batez ere

besteak errespetatzen irakastea oinarritzkoa da. Oinarria hezkuntza da eta bide oso luzea dugu aurrerik. **Nolako da zure inguruko arazoan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna?**
Donostiako Hortzetako profesia laborategian egon nintzen lanean eta haurra gaitoxen zenean berarekin egoteko aukerarik ematen ez zidatenez



lana utzi egin behar izan nuen. Senarra eta biok lan egiten dugu eta hemen ez daukagu aiton-amonarik haurra gaitoxen denean berarekin egon

Nire lurraldean matxistak badira ere gizon euskaldunak matxistagoak dira

ahal izateko. Bestetik, Hego Ameriketakoek matxisten fama badute ere, han, euskaldunek oso matxistak direnaren fama dute eta nik ere hala somatu dut. Esaterako, edozein den detan gizonek elkarrenari zuzentzen zaizkio, galderra nik egin arren.

«Gurean ez dago amak egiten duen lanik eta aitak egiten ez duenik eta alderantziz»

JOXE MARI URKOLA » Suhiltzailea

E. MAIZ
Joxe Mari Urkola (Tolosa, 1967) lanbidez suhiltzaile den arren, ematearekin batera etxeaz eta 9, 6 eta 3 urteko seme-alabek ardatzen da. **Familian, lagunartean edo lanean berdintasuna nola dago?**
Gure etxean berdintak gara, hau da, ez gara berdintak baina lanarekin egiterakoan edo lana berak aterakoan orduan edota erabakiak hartzeko garaian berdi-

angunak asko aldatu beharko dira eta horretarako denbora beharko da. Uste dut urte askotan jarraitu beharko dugula egun hau aldarrikatzen.



nak gara. Ez dago amak egiten duen lanik eta aitak egiten ez duenik eta alderantziz. Lagunen inguruan, nire belaundian gure gurasoekiko salito

Oraindik suhiltzaile lanetan ez dago emakumerik, sartzen hastea espero du

handin egon da. Gu emakerginean, ez zen aitari ikusten haurren-kotxearekin eta gaur, aitari ere, haurren heziketaren parte gara. Lanean berriaz, oraindik suhiltzaile bezala ez da emakumerik sartu. Espero dugu aldatzea ematea eta oraingoan sartzea.

«Kirol munduan zer bait aldatzen doan arren, oso poliki doa eta zaila ikusten dut»

ITZIAR ZUGASTI » Triatleta

E. MAIZ
Itziar Zugasti (Tolosa, 1974) triatletaria Villabonan bizi da. Orain, urtarria bitarte atsedena hartuz bere 14 hilabeteko Oler semeaz gozaten ari da. **Azaroak 25. Noiz arte jarraitu beharko dugu egun hau aldarrikatzen?**
Azken urteotan, nahiz eta saiakerak egin egunerok daude-

la berriak ikusten dugu. Espero duguna irtenbideekin aurrera egitea da baina era berean, ez da hain erraza. **Kirolaren munduan emakume eta gizonen arteko berdintasuna nola aldatzen da?**
Kirolaren munduan berdintasuna oso zaila ikusten dut. Zerbitu aldatzen bada baina oso poliki. Instituzio eta ko-



munikabideen aldetik nesken kirolak oso atzeratuta goaz. Komunikabide aldetik gehien bat mutilen berri izaten dugu. Kirol munduan oraindik lan

Instituzio eta komunikabide aldetik nesken kirolak oso atzeratuta goaz

asko dago egiteko. Triatletan mutilak eta neskek lan berdina egiten dugu eta alde horretatik ez dago bereizkerik. Bi aldetatik izugarriko ahalegina dago eta berdina da baina pena ematen du ez balia behar beste baloratzen.

jantzi dotore, jantzi hitza.

Salmenta puntuak: Tolosako OSKI arropa dendan
Leitzako TORREA Tabernea eta HITZAREN Tolosako eta Leitzako bulegoetan

zirak • elastikoak • jertseak • fularrak • buffak...

Gizartea » Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruan hitz egin du Josebe Iturrioz Udal teknikariarekin.

ENERITZ MAIZ

Azaroak 25, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko eguna dela eta, Josebe Iturrioz Tolosako Udaleko Berdintasun teknikariarekin egon gara hitzketan. Berdintasunaren inguruan luze eta zabal hitz egin du eta alor asko ukituz eta adibide ezberdinak emanez emakumeak oraindik ere zapalduta nola jarraitzen duen erakutsi du.

Jaiotzerako generoen arteko bereizketa egiten dugu

Emakumeak haurdun gelditu eta laugarren hilabeterako haurra neska ala mutila izango den jakiten du. Hortik aurrera era batera edo bestera, ezberdin jokatzeko dugu ume horrekiko. Aldatzen badoaz ere, oraindik, gela zein kolorez pintatu, arropa zein koloretakoa erosi, jostailuak ere argi eta garbi bereiztuta ditugu... Gabonak ate joka ditugula kontuan izanda, honetaz konturatzeko, haurrentzako jostailuen kanpainari begirada bat botu besterik ez dago.

Josebe Iturriozek hauxe azpimarratu du jostailuen inguruan «Guzurra ematen du, indarkeriaren aurka izugarritzko lana egiten ari gara eta jostailuei eskuliburua baino ez zaie falta nola jo behar duten erakusteko. Baina nola ez, jostailu guzti horiek mutilei zuzenduak daude. Eta zer daukagu neskenetzat? Pampina. Jada txikitatik sarzeten digute amatasuna». Nonbait, emakume bat amatasunik gabe ez da ezer.

Hezkuntzarekin jarraituz, eskolako jolas tokietan garbi ikusten da nortzuk diren nagusi. Txiki-txikitik, neskak txoko batean dauden bitartean, mutilek ia espazio osoa kontrolatzen dute. Iturriozek honek zer esan nahi duen argitu du: «mutilek jokuetatik hasita, txikitatik prestakuntza fisiko oso ona dute eta jolas tokian ere nagusi dira eta adibidez, futbolearen hasten dira. Neskak ere bai, baina 13 urterekin eta ziuurren gainera amak esanda, maskulinoa den kirola utzi egiten du. Hau errealtatea da eta honek eragin zuzena du txikitatik gure

Berdintasunerako bidean aldaketa sakonak eman beharrean gaude



Neska bat pampinen artean gustukoena aukeratzen. HITZA

gorputza nola hezitzen dugun. Mutila bada, bistakoa da kirola egin behar duela baina neska bada, zalanza gehiago izaten ditugu. Aita semearekin astebururo-astebururo joango da partidua dau den lekura eramatera baina neska kasuan, hobe da asteburuan etxeko lanetan laguntzea kirola egin baino.

Komunikabideen eragina

Iturriozek esandakoaren arabera, «berdintasuna urte askotako lana da, lan sakona eta arazoa estrukturala da. Ez dugu komunikabideek ematen diguten informazioarekin

Jostailuei eskuliburua baino ez zaie falta jotzen erakusteko eta hauek mutilei zuzenduak dira

gelditu behar eta arazoa benetan sakona dela ikusi behar da. Denbora guztiaren mezu kontrajarriak ditugu». Publizitatearen kasuan gehien saltzen duena sexua dela baieztatzen digu, hau da, nahiz eta kotxea izan saltzen dena, sexua erabiliko dute amu bezala eta emakumea amuan jartzen den haragi

zati hutsa bezala agertzen da. Gure gizarte moderno honetan ez gaude orain dela 50 urte bezala. Momentu honetan gizon emakumeen estereotipoak askoz ere gogorragoak dira. «Inoiz jarri al gara pentsatzen gure aitona-amonen garaiko emakumeak nolakoak ziren? Bada, bai beraieki titi eta ipurdi ederak zituzten». XIX. mendeko irudiak begiratu eta emakumeek kortseta erabiltzen zuten. Gaur egun aldi, kortseta gure gorputzean sartuta daukagula gogorarazi digu eta hortik etorri direla anorexia, pastilak, hormonak... Non eta noiz sortu dira? XX. mendean eta mundu moderno honetan. Azken 60 urtetan eman diren aldaketa teknologikoei generoen eragin zuzena izan dutela erakutsi digu. «Emakumeak, honen ondorioz gero eta emakumeagoak gara eta Barbieren antz handiagoa dugu. Eta orain, gainera, zirujia plastikoa dugu. Gu legeak aurrera eramateko ahalegin guztiak egiten ari garen era berdinean, puntako teknologia erabiltzen dituzte emakumeen estereotipo zorrotz baino zorrotzagoak asmatzeko. Teknologia hauek ikertzeko diru pila inbertitzen da, izugarria da. Eta tek-

nologia hauek bioteknologiak hain zuzen ere, gorputz bihurtzen dira. Egun gure gorputzak eraldatzen ditugu indarkeriaren oinarrian dauden estereotipoak azpimarratzeko eta nabarmentzeko».

Internet eta telebistarena, heziketa masa da. Eta bertan irudia da nagusi eta irudia, benetan oso garrantzitsua da. Ehuneko ehuneko estereotipoak dira eta egun oraindik muturrerago eramanak; gizona, zenbat eta gizonago hobe da beti. Emakume eta gizonen arteko bereizketa ez da naturala «Zenbat neska daude lehen begiradan ez dakizuna neska ala mutila den?

Publizitatean gehien saltzen duena sexua da eta emakumea objektu bezala erabiltzen dute

asko. Edota alderantziz ere gertatzen da, hau da, mutilak ez direla hain mutilak. Mutil indartsuak daude eta ahulak ere bai. Eta nesken artean gauza bera gertatzen da. Indarkeriaren kausak bilatu nahi baditugu gizarteari begiratu behar diogu. Indarkeria gure gizartearen antolaketaren oinarrian dago, gizon eta emakumeen arteko harreman jerarkikoan, hain zuzen ere. Gizarte modernoan espazio publiko eta pribatu bereizketan oinarritzen da, hau da, etxe barruko munduan eta kalekoa edo kanpokoan. Emakumeak etxeko lanetan eta gizonak mundu publikoan. Gainera jerarkian definitzen diren bi mundu horiek, eta indarkeria, sistema horrela mantendu nahi duen indarra dira».

Tratu txarren hasiera

Emakumeak bere autonomiarekin alde egiten duenean, orduan pairatzen du indarkeria eta orduan hil-

tzen dute, kasu gehienetan banatzeko nahia azaltzen duenean. Bere harremana utzi behar dueneko izaten dira momentu kritikoak, emakumeek jasaten duten indarkeria gehienetan, ezagutzen duten eta maitatzen duten gizonengandik jasoa izaten dela. Hau da, azken finean, tratu txarren alde bortitzena, gehienetan golpea, iraina, indarkeria maite duen gizonengandik datorrela. Oso zaila da maitatzen duen gizon horrek

Emakumeak bere autonomiarekin alde egiten duenean jasaten du indarkeria edota heriotza

tratu txarrek eman dizkiola onartzea. «Gainera komunikabideek eta gizarteak, orokorrean begirada beti biktimetan jartzen dute, erasotzaileen aurpegia normalean tapatua agertzen da, edo izena ez da inoiz esaten. Aldiz, salatzen duen emakumeak aurpegia eman behar izaten du medikuen aurrean, gizarterbitzuetako langileen aurrean, erizainaren aurrean, bizilagunen aurrean... Honi guztiari ber-biktimizazio edo biktimizazio bikoitza deitzen zaio». Emakumeentzako ez da erraza izaten publikoki tratu txarrik bizitzen dituela onartzea. Askotan, gainera, biktimak erasotzaileak balira bezala tratatzen dituzte. Adibide argia da bortzaketaren kasua, probokazioren argudioa entzuten jarraitzen dugu; arropa dela eta ez dela. Dirudienez pertsona askoren ustez, gona motza eramategatik eta taberna batean ezagutzen ez duzun gizon batekin hitz egitegatik bortzaketak justifikatzen da.

«Emakumeak beldurrarekin hezitua izan gara, gauari beldur, kaleari beldur, ia beti bortzaketaren beldur eta inoiz ez da esaten gizonazko beldurra diegula, gizonazko beldurra baituzte horrelakoak, ez guztiak noski, baina askok, gehiegik bai. Oso larria da munduaren erdiak beste erdiaren beldurra izatea. Horregatik aurrean tolosar guztian atxikimendua eta erantzukizuna eskatzen dugu Udaletik, arazoa ez delako publiko eta pribatu bereizketan oinarritzen da, hau da, etxe barruko munduan eta kalekoa edo kanpokoan. Emakumeak etxeko lanetan eta gizonak mundu publikoan. Gainera jerarkian definitzen diren bi mundu horiek, eta indarkeria, sistema horrela mantendu nahi duen indarra dira».

Emakumeak bere autonomiarekin alde egiten duenean, orduan pairatzen du indarkeria eta orduan hil-

Irurako  udala

Biolentzia generikoaren aurka

Mikel goi aingeru plaza, 1

943 69 13 33



Arropa asko zegoen erosteko; hala ere, jostailuak izan ziren arrakasta gehien izan zutenak; bai erabiliak eta baita berriak ere ikus zitezkeen. EDU ARRAYET

Ipar Potosira 500 euro bidaliko dute Bigarren Eskuko I. Azokari esker

Alegia » Jostailuak izan dira azokan gehien saldu direnak jantzien ondotik; eguraldiarengatik frontoian izan zen.

NEREA URBIZU

500 euro. Euro horiek guztiak Ipar Potosira (Bolivia) bidaliko dituzte aurki. Diru hau bertako indigenek eskola batean ikasteko aukera emateko izango da. Igandeko goi-

zean zehar Alegiako Elorri pilotalekua Bigarren Eskuko Azokan bihurtu zen, herrian egiten den lehenengo bigarren eskuko ferian, hain zuzen ere. Herriarrak hila-bete osoan zehar Kultur eta Kirol Etxean arropa, jostailuak eta liburuak uzten joan dira eta «egia esan, material asko bildu dugun». Hala ere, azoka ez da jendetsua izan.

Kultur Etxeko arduradunek esan bezala, «eguraldiak ez zuen batere lagundu eta gainera, gauza berria da herrian, hau egiten du-

gun lehenengo urtea da». Goizaren hasieran «jende gutxi» zegoen, «baina gero, beranduxeago jende gehiago elkartu zen. Ez da kexatzekoa, jendea oso ondo portatu da». Feria *Udazkenean Kulturaren* baitakoa izan da, eta interes berezia jarri dute hau antolatzeko orduan.

Azokako izarra jostailua izan zen: «Jostailu asko saldu zen herenegun». Jostailuen atzetik arropak joan ziren, elastikoak gehienbat. Guztira sei bat postu zeuden pi-

lotalekuan: jostailuak, adin guztietarako mota eta urte sasoi guztiarako arropak eta oinetakoak, liburuak, DVDak... Hauxez gain, erdian ordenadore pare bat eta bizikletak ere bazeuden.

Jostailuak erosi, gero saltzeko Hortaz, bazegoen zer erosi eta nola lagundu, ez baitzen erostea behar. Erraztasunak zeuden dirua emateko: askok, jostailuak erosi zituzten espreski azokan saltzeko, beste askok dirua eskura eman zu-

ten laguntzaren parte izateko, eta beste batzuk, berriz, frontoian zeuden itzulapikoetan sartu zuten dirua.

Dantzari Txikikoek taloak pres-tatu zituzten bertan, hurreratzen zen jendeak hamaiketako egiteko aukera ere izan zezan, eta nola ez, modu honetan ere, dirua ateratzen laguntzeko.

Etzi immigrazioari buruzko filma ikusgai

Etzi, *Udazkenean Kulturaren* barruan immigrazioari buruzko zine-foruma izango da eta kasu honetan *Flores de otro mundo* (Iciar Bollain) filma ikusi ahal izango da 20:00etan, Kultur Etxean. Ostiralean, aldiz, bertso poteoa izango da 19:30etik aurrera.

Txintxarri abesbatzaren saioa

ERREDAKZIOA

Jubilatuen eguna izan zuten herenegun Amezketan. Horretarako, Txintxarri abesbatza joan zen kontzertua eskaintzera. «Pozik» utzi zituzten Txintxarri amezketarrak.

Jubilatuen eguna zela-eta, era askotako kantu sorta eraman zuen zakuan Alegiako Txintxarri abesbatzak igandean. Orduerdiko jardunarekin Bartolome Deunaren elizan elkartutako jendea gozatzeko moduko emanaldia eskaini zuten alegiarrek.

Euskal doinuak ez ezik munduko beste kulturetako kantuak ere eskaini zituzten Garbiñe Orbegozoren zuzendaritzapean. Aita Donostiak bildutako *Binbili bonbolo*, *Jaiki, jaiki etchekuak* edota *Chorittua, nurat hua?* aspaldiko doinu ezagunak gogora ekarri zituen Txintxarri abesbatzak igandeko kontzertuan. Javi Bustok moldatutako *Itsasoa laño dago* abestia ere gustatu zitzaion Amezketako elizan bildutakoiei. *El abanico* habanerak irri bat edo beste sortu



Txintxarri abesbatza Amezketako elizan, saioa eskaintzen. HITZA

zuen entzuleengan, abeslariiek tzaileari bizia eman zion Xefe Ba-

lerdiki eta kantuan jarri zituzten amezketarrak ere. Abendua gain gainean dugun honetan, Txintxarri Eguberrieta-ko emanaldiak prestatzen hasita dago dagoeneko, eta kantu berri batzuk estreinatzeko asmoa du.

Hotzari aurre egiteko, gaztain-jatea egokiena

ERREDAKZIOA

Ugarten gaztain-jatea izan zuten joan den larunbatean. 80 lagun inguruk eman zuten izena elkartearen afaltzeko eta egun heze hartan lortu zuten denen artean giroa bero-teea eta sortzea. Urtero egiten dutena da. Aurten, 40 kilo gaztain erre zituzten Paulok eta Josebak. Hauetako dagoeneko arratsaldean hasi ziren prestatzen, eta hori zapo-aren nabaritu zen.

Sahieski erre ere prestatu zuten: guztira, 35 kilo. Baina afari hau biribiltzeko irasagarra, gazta eta la-

zitoak ere izan ziren. 23:30ak alde-ra, hiru ordu eserita egon ondoren, dantzatzeko aukera izan zuten Ugartera bertaratu zirenek: Xabier eta Iñaki aritu ziren trikitixarekin, eta baten bat animatu zen dantzatzera.

Batzuk erretiratu, eta beste batzuk gauari segitu behar: Ugartertik gehienak Amezketan jarraitu zuten festa auskalo noiz arte... Ugarterteko herritarrek euren blogean egun hartako argazkiak jarri dituzte ikusgai: www.ugartetik.blogspot.com-en, hain zuzen.



80 lagun bildu ziren Ugarten antolatutako gaztain-jatean. HITZA



Esperanza Latina Elkarteak Ekuadorreko dantza erakustaldia eskaini zuen herriko plazan. | IVUYA URRUTIA

Zapore onarekin amaitu dute Kultur Truke Hamabostaldia

Ibarra » Saharako zein Ekuadorreko jakien dastatzearekin amaitu da kulturartekotasuna sustatzeko hamabostaldia.

REBEKA CALVO

Igandean bukatu zen Ibarrrako Udalak Ibarrratik Misisio Taldea, Tolosaldea Sahararekin eta Comunidad de Ecuatorianos Residentes en Ibarra elkarteekin antolatutako Kultur Trukea.

Ekintzez beteriko hamabostaldi honen xedea Ekuadorreko Ibarra eta Saharako Tichla herriak Ibarrrarekin duten senidetzea dela eta kulturartekotasuna sustatzea da.

Horiek horrela, besteak beste, hitzaldiak, filmak eta antzerkia izan dira ikusgai azken hamabost egunetan eta Ibarrrako alkateak, Txelo Romeok, esan duenez «Udalak oso balorazio positiboa» egiten du. Izan ere, «hitzaldietan



Saharako eta Ekuadorreko jakien dastatzea ere izan zen. | IVUYA URRUTIA

espero baino jende gutxiago» egon bada ere «etortzeko erabakia hartu zutenek segurua gauza asko ikasteko aukera izan dutela», gaineratu du alkateak.

Dantzak eta jakien dastatzea

Igandean amaitu ziren ekintzak Esperanza Latina Elkarteak Ekuadorreko dantza emanaldiarekin.

San Bartolome plazan izan zen Ekuadorreko dantza tipikoen erakustaldia eta oso giro ona izan zen alkatearen hitzetan: «Santa Zeziliako meza berezia amaitzerakoan izan ziren dantzak eta beraz jende asko bildu zen plazan, oso giro ona egon zen». Ondoren Sendi Ekintzara joan ziren guztiak eta bertan Saharako eta Ekuadorreko jaki desberdinak dastatzeko aukera izan zen.

Romeok datozen urteetan ere erahonetako kultur programazioa egiten jarraituko dutela ere esan du, «herriarentzat oso aberasgarria» baita.



Giro ona «piparminen» bazkarian

IBARRA » Bukatu dira Ibarrrako Gaztetxearen 15. urteurrena ospatzeko Gazte Asanbladak antolatutako ekintzak. Horieta azkena larunbetea izan zen, II. Piparmin Eguna izan baitzuten herrian. Eurria zela-eta goizeko triki-poteoa bertan behera geratu zen, baina gainontzeko ekintza guztiak egin zituzten. Bazkarian 75 bat lagun bildu ziren giro epelean eta ondoren frontoira joan ziren gazte-olinpiadetan parte hartzeko. | R.CALVO

«Presoen dispertsioa salatzen» manifestazioa izango da ostiralean

Ibarra » Hilabete azken ostiralean egin ohi den presoen aldeko bilkuran Udalaren jarrera salatuko dute manifestazio batekin.

ERREDAKZIOA

Hilabete azken ostiral guztietan egin ohi den moduan euskal presoen aldeko bilkura egingo dute herrian. Hilabete honetan ere egingo dute; hala ere, salaketa berezia ere egin nahi dute eta hori dela-eta manifestazioa ere izango dela iragarri dute.

Izan ere, Ibarrrako Udalaren jarrera salatu nahi dute herrian eta horrexegatik *Udaletxe honek dispertsioa bultzatzen du* lemapean egingo dute manifestazioa ostiralean, hilak 28, 19:30ean Ibarrrako sarreratik abiatuta.

«Orain arte presoen senideen bidaietarako jasotzen zituzten

diru laguntzak uztailearen 29ko Udalbatzan aho batez bertan behera geratu zirela salatuko dugu. Erabakia are larriagoa deritzogu bezperan presoen senide eta lagunekin bildu ondoren horrelako asmorik zutenik ukatu zutelako», adierazi dute antolatzaileek.

Izen abizenak dituzte

Horiek horrela, manifestazioko antolatzaileek deialdia «hilabete azken ostiralak duen izaera anitz hori mantendu nahi» duela adierazi dute. Hori bai euren hitzetan «dispertsio politikaren erantzuleak izen abizenak dituzte eta oraingoan Ibarrrako Udalbatza osoa beraiekin lerrotatu da horrelako neurri miseralea aho batez onartu dute».

Era berean, euskal presoak eta euren senideak «bakarrak ez uzteko» deialdia egin dute eta «elkartasunabiderkatze» deia ere luzatu dute.

Laburrak

Ipuin kontalari saioa izango da gaur Kultur Etxean

IBARRA » Gaur 17:30etik aurrera ipuin kontalari saioa izango da Ibarrrako Benito Izagirre kultur etxean. Saioa Lur Korta ipuin kontalari ezagunak zuzenduko du eta 2 eta 4 urte bitarteko haurrei dago zuzenduta. Ekitaldia herriko Udal Liburutegiak antolatu du. Liburutegiak adierazi duenez, bertaraten diren haurrek zaintzaile batekin egin beharko dute saioa.

Ur mozketa izango dute bihar goizean herrian

ELDUAIN » Elduaingo Udalak jakinarazi duenez, ur mozketa izango da herrian bihar, hilak 26. Zehazki 09:00etatik 13:00etara moztuko dute ura. Udalak ohar baten bidez argitu duenez, «ur hornidurarako instalazioetan egin behar diren lanen ondorioz beharrezkoa dela aipatzen den eguna eta orduetan ur pangatik hornidura zerbitzuaren bora batez itxia».



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Nazkatuak gaude! Emakumeok autodefentsan!

» Iritzia

Maria Garcia, Eider Elduaian eta Oihana Lopetegi
Bilgune Feminista

Aurten, oraindik bukatu ez den urtean, jada 5 emakume erail, ehunka eraso zein bortxaketa eta emakume desagertu bat daramatza. Argazki hau zoritxarrez urteak pasa ahala errepikatzen ari den irudia da, XXI. mendean bagaude ere.

- Nazkatuak gaude indarkeria kasuak jazoera isolatu bezala tratatzeaz.

- Nazkatuak gaude gure askatasuna mugatzen duten jarrerak eguneror jasan beharraz.

- Nazkatuak gaude instituzioek biktima soilak bagina bezala tratatzeaz.

- Nazkatuak gaude agintariak duten erantzukizun politikoa ez betetzeaz.

- Nazkatuak gaude komunikabideek indarkeria morboa bultzatzeak erabiltzeaz.

Emakumeok, emakume izate hutsegatik egun oraindik erasotuak

gar jendarteko arloguztietan. Emakumeenganako indarkeria estrukturala baita, sistema kapitalista eta patriarkal honek martxan duen bostere harreman hierarkikoetan du bere erroa.

Errealitateak marrazten digan argazki krudel honen aurrean pazientzia bukatzen ari zaigu emakumeoi. Iada ezin dugu gu "salbatzera" noiz etorriko zain egon, ezin dugu gure segurtasuna eta bizitza beste batzuegan delegatu.

Gurengandik abiatuta egin behar diogu aurre indarkeriari; emakume aske eta autonomo bezala formatuz, gure buruarengan dugun ziurtasuna handitu eta gaitasunetan sinistuz. Geure etorkizuna, gure gorputza eta bizitzaren jabe izatea nahi dugulako. Horregatik, autodefentsa feminista garatzeko deia egin nahi dugu.

Autogestiotik eta antolaketaaren aldeko apustua eginez ulertzen dugu autodefentsa feminista. Arazo sozial honi aurre egiteko beharrezkoa da emakumeok antolatzea, gure artean babestea, taldean eztabaidatzea eta espazio komunak eraikitzea. Erabil ditzagun gure gaitasun

guztiak emakume bat gehiagok indarkeriarik jasan beharrik izan ez dezan; berak bizi izan duenak guztioi eragiten baitigu. Ez dugu bat gehiago pasatzen utziko. Ez emakumeok emakume garen aldetik, baina ezta jendarteak berak ere, parekidetasunean oinarrituriko etorkizuna nahi badugu Euskal Herrian. Erasotzaileei bazterketa soziala.

Jarrera hortatik urrun ikusten ditugu instituzioak. Bideragarriak ez diren neurriak planteatzen eta hauen publikitateak egiten dute arazoaren erroetara joan gabe. Zurikeriak alde batera utzi eta benetako konpromiso politikoa agertzeko eskatzen diegu egoera larri honen aurrean. Eredu pribatua, ekonomikoan, legialtiboa, sozialean, kulturalean edota hezkuntza esparruan eragingo duten neurri integralak indarrean jarri behar dira arazo sozial honekin amaitzeko. Eta horretarako, neurriekin bat egiten duten arretontuak ezinbestekoak dira.

Itxurakeria gehiagorik ez! Hitzetatik ekintzetara! Erasorik ez, erantzunik gabe! Emakumeok autodefentsa!



Santa Zeziliako doinuak

TOLOSA » Herenegun Leidor aretoan musikariak Zezilia Deunaren omeneko kontzertua eskaini zuten. Jende ugari bildu zen Giroarte dultzaina taldea, Udal Txistulari Banda, Maiatz Akordeoi Orkestra, Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestra eta Musika Bandaren doinuak entzuzera (irudian, Musika Bandaren emanaldiaren une bat). EDURNE MARTINEZ DE TREBILLO

Depresioari buruzko ikastaroan izen-ematea

Tolosa » Doakoa izango da eta 20 lagunentzat lekua dago; hizlari lanetan Iranzu Gabilondo psikologoa ariko da.

ditu, 17:00etatik 20:00etara bitartean.

Egitariaren nondik norakoak
Iranzu Gabilondok lau saio eskainiko ditu eta horietan hainbat alor landuko ditu; batetik, psikopatologia inarriak aztertuko ditu (eragozpen neurotikoa, aldarte goraberhen eragozpenak, jatorri orbanikoak dituzten eragozpen kognitiboak, eragozpen psikotikoak...); bestetik antsietate, depresio edo narriadura kognitiboko sintomak dituzten pertsonekin esku hartzeko arauak azalduko ditu.

Esku-hartze psikosoziala depresioan gaia ere landuko du psikologoak. Bertan garatuko ditu eredu teorikoak, ebaluaketa, esku-hartze faseak, aldatu beharreko ohi-turak, depresioa duten pertsonen harremana eta komunikazioa...

Bukatzeko, jokaera terapiari buruzko oinarriko ideiak ere azalduko ditu Gabilondok ikastarotant.

ERREDAKZIOA

Tolosako Udalaren Gizarte zerbitzuen eskutik, *Depresio eta antzietate eragozpenak adineko pertsonetan* ikastaroa antolatuko dute Tolosan, abenduaren 9an, 10an, 16an eta 17an (astearte eta asteazkenean).

Bertan parte hartu nahi dutenek izena eman dezakete 663 057223 telefono zenbakian edota formakuntza@laharekargoa.org helbidetan.

20 lagunentzat izango da ikastaroa gehienez eta doakoa izango da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekimen sozialerako planak finantziazten baitu.

Hizlari lanetan, berriz, Iranzu Gabilondo psikologoa ariko da eta hiru orduko saioak eskainiko

hain justu. Alde batetik, etxetara banatu den puntu morea lehoetan jartzeko deia zabaldu dute. Bestalde, 12:15ean udaletxe aurrean elkarretaratzea egingo dute indarkeria sexistaren aurka.

Tolosan eta Villabonan, gaur

Tolosan, Bilgune Feministak deituta, elkarretaratzea egingo dute gaur 20:00etatik aurrera Triangulo plazan. Horretaz gain, genero indarkeria hizpidet hartuta, mahai-ingurua egingo dute etzi, 16:00etan, Miriam Herbonen eskutik.

Gaspe Topaguneak ere gaia jorratu nahi izan du ostiralean, 18:00etan, Iciar Bollainen Amores que matan film laburra emango dute. Ondoren, gaiari buruzko eztabaida egingo dute.

Villabonan, berriz, bilkura eta sorpresa egingo dituzte, Berdura plazan, Hutsuneak Betez eta Udalak deituta.

Azaroak 25a dela-eta ekitaldi ugari gurean

ERREDAKZIOA

Azaroak 25: Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna. Hori dela eta, ekitaldi ugari antolatuko dituzte eskualdeko hainbat udalak.

Anoetan, esaterako, 15:30etik 17:00etara, Ikastolako DBH 3 eta 4ko ikasleei zuzendutako, tratuen inguruko murala egingo dute. Halaber, gaur hasi eta abenduaren 3ra arte, indarkeria sexistaren aurkako leloen lehiaketan ikasle hauek landu dituzten lelo guztien erakusketa zabalduko dute kiroldegian.

Bestetik, Udalak patrikako egutegiak banatuko ditu Gabonon aurretik, indarkeriaren gaia ardatz izanik. Egutegietan leloen lehiaketa

tan irabazten duen leloa jarriko dute.

Ostiralean ere ekitaldiak

Ostiralean ekitaldiei jarraipena emango diete Anoetan. Hala, 17:00etan, genero-sentsibilizaziorako animazioa egingo dute plazan. 18:00etan, berriz, *Gizonduz* indarkeriaren aurkako manifestuaren aldeko sinadura bilketa egingo dute.

Irunen ere deialdiak

«Emakumearenganako indarkeriari ez esateko» mezua zabaldu du Irurako Udalak ere eta bi deialdi egin ditu gaurkorako Emakumearenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean,

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Hilberria

AGUSTINA SEGUROLA IBURUZKETA
(Jose Maria Zubizarreta-ren alarguna)

Nahiz eta joan zaigun gure amona maite, badakigu ez zarela joan hain aparte, zu baitzara gutako

bakoitzaren parte, besarkada ta muxu bana fuerte-fuerte, ganpasa, ondo lo in eta bihar arte!



Zure bilobak: Esteban, Nekane eta Joxe Angel, Igor, Ander eta Maitane, Iban eta Miren, Josu eta Naiara, Olatz eta Ruben, Pakea eta Arkaitz, Jone eta Xabier, Iñigo eta Maider, Andoni, Ainhoa, Unai.
Zure birlobak: Peru, Xanet, Eki.

AIZARNAZABAL,
2008ko azaroaren 25ean



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: OS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraledea: 687 410 032. ibarraledea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialedea: 687 410 034. alegialedea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzailedea: 687 410 118. leitzailedea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaileko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Alegia.** Bertso-poteoa 19:30ean Unai Muñioa eta Iñaki Gurrutxaga bertsoariekin eta Eider Zubillaga eta Maider Zabala trikitilariekin; 21:00etan bertso-afaria Intxurre elkartearen. Txartelak Kultur Etxearen salgai 17 euroren truke (bihar arte). Udazken kulturaren baitan.
■ **Anoeta.** Alkartasuna Biltokiak jubilatuen meza 12:30ean eta bazkaria antolatu du Alkartasuna biltokiak hilaren 27an Zuloaga txiki jatetxean, elkarrearen XVI. urtemugan eta Milagrosa delako. Izen-ematea, elkarrean 22 eurotan (bazkide ez direnek, 25).
■ **Ibarra.** Galtzakomik komiki lehiaketa antolatu dute Galtzaundik eta Udalak. Lanak Galtzaundi Euskara Taldearen egoitzan aur-

keztu behar dira, bihar da horretarako azken eguna.

■ **Tolosa.** Euskal Herriko Unibertsitatearen jardunaldi informatiboa Kultur Etxean 18:00etan.
■ **Tolosa.** Milagrosaren bederatzirrena lurreamendi Egoitzako kaperan, 08:00etan astegunetan, 09:00etan jaiegunetan eta arratsaldeetan, 16:00etan. Mezaren aurretik errosarioa errezatuko da.
■ **Tolosa.** Euskararen eguna dela eta, Kontseiluak, abenduaren 13an, BECen antolatu duen ekitaldira autobusak antolatu ditu Galtzaundi Euskara Taldeak, 15:30ean aterata tren geltokitik. Izen-ematea, Galtzaundiko egoitzan 11 eurotan (bazkideek, 8 euro).
■ **Tolosa.** Lizardiko eskopetariaren afaria abenduaren 13an Maite

Amonarritz kapitaina omentzeko. Izen-ematea, 699 551765 telefono zenbakian.

■ **Tolosa.** Txuletaren Festa abenduaren Setik 8ra izango da Zerkausian. Afariak 5etik 7ra eta bazkariak 6an, 7an eta 8an. Erreserbak (40 euro) 943 697413 telefono zenbakian edo tour@tolosaldea.net helbidetan.
■ **Tolosa.** Osasun eta Gizarte zerbitzuen alorrean lan egiten duten herriko talde eta elkarreentzako diru laguntza deialdia. Informazioa, udalarekin eta www.tolosaldeko hitza.net.
■ **Tolosa.** Biharkoan Nekane Juradok *Nor gelditzen da nire diruare-*

kin? Kapitalismoaren gezurra hitzaldia emango du udal batzar aretoan 20:00etan, ezker abertzaleak antolatuta.

■ **Villabona.** Aizkardi mendi elkarrearen 25. Mendi Astea. Hitzaldiak eta proiektzioak izango dira egunero Gurea zinemaren, hilaren 30era arte.

Erakusketa

■ **Anoeta.** 2009ko egutegirako argazki lehiaketako lanen erakusketa Abraham Olanok kiroldo egian.
■ **Tolosa.** Ainhua Arregi, Amaia Aramendi eta Arrate Iturbe artistek *Iparretik Hegora buruz behera* argazki erakusketa jarri dute Itai

tabernan, Peru, Argentina eta Mozambiquen ateratako irudiekin.

Azokak


■ **Tolosa.** Liburu Azoka San Franzisko pasealekuan goiz eta arratsaldean, hilaren 30era arte, igandarekin.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Inaxi Agirrezabala (Ugarte).
Gaur 86 urte. Zorionak eta muxu handi bat famili guztiaren partetik.



Urte askoan!

Gorritz jantzitako emakumea.
Zure bazkarirako bonoak mahaiantz dituzu. Topatuko al dituzu? Je, je.

euskaraz
13!
pauso bat harago
Kontseiluaren 10. urteurrena
* abenduak 13 * BEC * 18:00
Ezinbestekoa da doako sarrera eskuratzea:
nierebanoa.com webgunean
902 82 02 40 telefonoan
laguntzailea **hitza**
KONTSEILUA

Galtzaundi Euskara Taldeak eta Tolosaldeko eta Leitzaileko Hitzak 1936ko Gerrako Oroitzapenak liburuaren inguruan antolatutako ekitaldi hauetara gonbidatzen zaituzte.



AZAROAK 28, OSTIRALA
Garraxi Ixila antzezlan (Lasarteko Landaberri antzerki eskola). Xabier Lasaren Oroimenean *Lokartutako Ahotsa* liburuaren oinarritutako obra.
Ordua: 22:00
Lekua: Leidor Zinema

ABENDUAK 1, ASTELEHENA
1936ko Gerrako Oroitzapenak Tolosaldea eta Leitzailean liburuaren aurkezpena, Mikel Errazkin Agirrezabala eta Joxemi Saizar Arostegiren eskutik. Ondoren lunch-a guztientzat.
Ordua: 20:00
Lekua: Tolosako Zerkausia

ABENDUAK 2, ASTEARTEA
Gerra Zibila Tolosaldean hitzaldia, Aranzadi Zientzia Elkarte Mikel Errazkin Agirrezabala eta Juantxo Agirre Mauleonen eskutik.
Ordua: 20:00
Lekua: Tolosako Udaleko Pleno Aretoa

1936KO GERRAKO OROITZAPENAK

TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN



Oharra: Ekitaldi guzti hauetan 1936ko Gerrako Oroitzapenak liburuaren eskuratzeko aukera izango da.